

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Rachel L. Mellon Collection

Balenciaga, 100 urte



Cristóbal Balenciagaren erretratua. 1937. Urtekoa. © Sarria / Cristóbal Balenciaga Museoa.

Balenciagak 1917an zabaldu zuen lehenengo tailerra, Donostian, 22 urte baino ez zituela. Hura izan zen Parisen ospea eman zion jarduera biziaren hasiera; izan ere, lehenengo tailer hura zabaldu eta hogeitaurtera hiri hartara joan eta Nazioarteko Goi Mailako Joskintzaren «Maisu» bihurtu zen.

2017. urtean betetzen dira, beraz, 100 urte Balenciaga gazte hark abentura sortzaile eta enpresarial hari ekin ziola, eta 80 urte dira, halaber, George V.a Boulevardeko 10. zenbakian Parisko etxe ospetsua zabaldu zuela.

Mendeurren horren testuinguruan aurkeztuko du Cristóbal Balenciaga Museoa *Rachel L. Mellon Collection* erakusketa, eta 2017ko maiatzaren 27tik 2018ko urtarrilaren 25era bitartean bisitatu ahal izango da. Emakume handi bati egingo zaio omenaldia bertan, garrantzi handia izan baitzuen Balenciaga etxearen bezero gisa, bere garaiko figura sozial gisa, paisaiagile autodidakta gisa eta hainbat herrialdetako kultur erakunde ugarietako ongile gisa, besteak beste, Cristóbal Balenciaga Museoaren beraren ongile gisa.



Mellon andrearen ondarea

Rachel Lambert
Mellon (1910–2014),
Bunny izenarekin
ezagutzen zena,
Ipar Amerikako goi
mailako gizarteko xx.
mendeko damarik
handienetakoa izan
zen.

Filantropoa, arte-bildumagilea, lorategien diseinatzailea, Kennedy familiaren lagun pertsonala, eta Paul Mellon finantza-handiki eta mezenas handiaren emaztea izan zen, eta Balenciaga *Maisonak* izandako bezero dirudun, sentikor eta eskusiboen arketipoa da.

Hala izanik, eta jostunarekin kidetasun eta adiskidetasun harremana zuelarik, Balenciagaren jantzi-multzo garrantzitsuenetako bat edukitzearen pribilegioa izan zuen Mellon andreak. Multzo horren barruan era guztietako jantziak eta osagarriak zituen, bere bizitza sozialean zein pribatuan erabili zituenak. Kronologikoki, 12 urteko tartekoak dira horiek guztiak, hain zuzen ere 1957. urtetik hasi eta 1968an Balenciaga itxi bitartekoak.

«Bilduma pribatuek beren fisionomia dute, eta sortu dituztenen gustuak eta jarrerak erakusten dituzte, noski». Gogoeta hori egin zuen arte bildumazaletasunari buruz John Rewaldek, Mellon senar-emazteen arte bildumatako baten erakusketaren katalogoan, eta berdin-berdin balia zitekeen beren jantziak hautatzeko, erosteko, gordetzeko eta are dokumentatzeko modua azaltzeko ere. Jantzi horien parte bat Cristóbal Balenciaga Museoaren ondareari atxikia dago, izen bereziaz.

Bilduma

Urteen joanean osatzen joan den bildumak bultzada handia jaso zuen 2014. urtean, hain zuzen ere, Mellon andreak agindu bezala, hil ondoren jasotako ondare izugarriari esker, eta gerora aberastu egin da, gainera, *Gerard Lambert Foundation*en eskutik, bildumari buruzko dokumentazioa jaso denean.

Era horretara, bilduman era guztietako eta eguneko edozein ordutan jartzeko jantziak eta osagarriak biltzen dira, Mellon andreak 10 urtez baino gehiagor eutsiak. Zehazki, eguneko 120 traje daude, 50 beroki, koktelerako 40 soineko, gaueko 25 soineko, 20 *déshabillé*, lorategirako 10 jantzi, arropa zuriko 30 pieza, 215 zapi, 32 buruko eta kapela, eta 660 pieza bitarteko idatziez osatutako multzoa.



1956. urtean erositako modeloen faktura.
© Rachel L. Mellon bilduma / Cristóbal Balenciaga Museoa.

Era berean, Rachel L. Mellonen funtsean, artxibo dokumental bat dago, **jatorrizko 138 zirriborro** (dagokien ehun-zatiekin) eta **250 gutun komertzial eta pertsonal** biltzen dituena.

Museo baten funtsean dagoen eta bezero bakar bati dagokion Balenciagaren bilduma handiena da gaur egun, zalantzarik gabe. Baina erreferentzien bolumena bere horretan aipagarria bada ere, are aberatsagoa da bildumaren ugaritasuna eta bildumako jantzien eta dokumentuen arteko harremanetik ateratzen den informazioa, eta hori guztia Mellon andrearen kontserbazio-ohiturari esker lortu dugu.

Dokumentuen iraunkortasunaren eta jantzi-bildumaren arteko harremanak ezin hobeto islatzen du nolakoa zen nazioarteko bezero baten erosketa-prozesua Balenciaga etxean, ereduak hautatzeko bidalitako zirriborroekin hasi eta fakturaren bidalketaraino. Aldi berean, hainbat dokumentu daude nabarmentzen dutenak Mellon andreari eskaintzen zitzaion eskusibotasuna eta lehentasunezko tratua. Nabarmentzekoa da Bunnyk berak, hainbat zirriborro-bildumaren bitartez, sortutako objektua, «I Feel Pretty» izenburua duena. Sentiberatasun handiko album bat da, Cristóbal Balenciagarenganako mirespenez betea; bertan helarazten digu zer sentimendu eta sentipen sortzen zitzaizkion bere adiskidearen lan bat jantzen zuenean.

Erakusketa

Rachel L. Mellon Collection erakusketa da ondare horren inguruan museoak egiten duen lehena. Bilduma hau osatzen duten ehungintza-erreferentzien eta dokumentuen artetik (600 inguru, guztira), **150 pieza erakusgarri** hautatu dira; horietako gehienak ez dira aurretik erakutsi. Zehazki, **97 jantzi** erakutsiko dira, jatorrizko dokumentuekin eta objektu pertsonalekin batera: zirriborroak, gutunak, fakturak, argazkiak, etab.



Rachel L. Mellon bildumak bultzada handia jaso zuen 2014. urtean. Museoa 400 pieza baino gehiago jaso zirenean.
© Rachel L. Mellon bilduma / Cristóbal Balenciaga Museoa.

Erakusketak Balenciagarengana hurbiltzeko aukera ematen digu, baina Bunny Mellonek eskaintzen duen iragazki zoragarriaren bitartez; izan ere, haren bezero eta adiskide izateaz gain, bildumagile aditua zen eta gutxiren eskura zegoen bizimoduaren erakusgarri ere bazen.

Irakurketa hori erronka konplexua da, eta museoaren lehendakari sortzaile den M. Hubert de Givenchyren zuzendaritzapean jarri da abian. Hura giltzarria izan da bildumaren sorreran, eta, horrez gain, bien adiskidea ere

Mellon andrea eta haren mundua

Erakusketaren gai nagusietako bat, ezin zitekeen bestela izan, Mellon andrearen biografia da, garai historikoaren testuinguruan kokatua. Haren biografiak aukera ematen digu ezin hobeto ulertzeko zer garrantzi izan zuen pertsonaia publiko hark gizartean eta nolako intimitatea zuen pertsonaia pribatuak.



1910ean jaio zen, Rachel Lowe Lambert izenarekin. Aitonak, Listerineren asmatzaileak, industria kimikoan eta aitak Gilletteko lehendakari gisa egindako dirutzaren oinordekoa izan zen. Birritan ezkondu zen: lehenengoan, Stacy Barcroft Lloydekin, zeinekin bi seme izan eta 1946an dibortziatu baitzen. Bigarren ezkontza bi urte geroago etorri zen: Paul Mellon hartu zuen senartzat, aurretik bi seme zituen alarguna, munduko gizonik aberatsenetakoa, mezenaz handi eta arte-bildumagilea.

Mrs. Mellonek, ororen gainera, bere intimitatea baloratzen zuen, eta ez zuen jendaurrean agertzeko joerarik. Adiskide-zirkulu txiki eta fin batekin sozializatzen zuen; horien artean zeuden, adibidez, Kennedy presidentea eta haren emazte Jackie. Aipatzekoa da Virginiako Oak Springeko bere etxe eta lursail izugarrian Ingalaterrako errege familiaren bi belaunaldi hartu zituela: Elisabet II.a eta Edinburgoko Filipe Printzea 1957an, eta, handik urte batzuetara, Karlos Printzea eta Lady Di; hura izan zen, hain zuzen ere, printzeak eta printzesak amerikar *biran* egoitza pribatueta egindako bisita bakanetako bat.

Paul eta Rachel Mellon arte erakusketa baten inaugurazioan, Washingtongo National Gallery of Art Museoan 1965. urtean. ©National Gallery of Art, Washington D.C. Gallery Archive.



Mrs. Jacqueline Kennedy Mrs. Mellonekin batera, Dr. Martin Luther Kingen alarguna eta semea bisitatu ondoren, 1968ko apirilaren gan © Bettman bilduma/Getty Images.

Bunny Mellon, zalantzarik gabe, garrantzi ekonomiko handiko elite bateko kidea izan zen, baina baita garrantzi politiko eta intelektual handikoa ere. Arteen mezenas eta filantropo gisa, Paul senarrarekin batera, 1.000 artelan baino gehiago utzi zizkion National Gallery of Art museoari, Cezanne, Van Gogh eta Degasen lanak, besteak beste. Jendaurrean egindako argazki bakanetan, kulturaren munduko pertsonaia handiekin batera agertzen da, hala nola, Truman Capoterekin, I.M. Pei arkitektoarekin edota Adam Peiperl artistarekin.

Mellon andreak bi elkarrizketa baino ez zituen egin bere bizitzan: New York Times egunkarian lehena, 1969an, eta Vanity Fair aldizkarian bigarrena, 2010ean. Lehenengotik atera zen «nothing should be noticed» esaldi ospetsua; hura zen, hain zuzen ere, Mellon andrearen kredo pertsonala.

Amerikar bizitza sozial eta kulturalaren botere-eremuetan presentzia apala eta eragin estalia are irudi urriagoekin osatzen da –Henri Cartier-Bressonen irudiak, esaterako, Vogue aldizkarirako–. Horien bitartez, Mellon andrearen ikuspegi pribatuago bat azaltzen da, bere pasio handiari eskainia, lorategiari hain zuzen, eta zeregin horretarako jantziekin: Balenciagak diseinatutako tunika, blusa eta gonekin.

Lorezaintza, baratzezaintza eta paisajismoaren azterketa eta jarduna dira Mellon andrearen ezaugarri nabarmen eta pertsonalenak, bere merituei esker nabarmendu baitzen alor horietan. Txikitatik izan zuen zaletasun hori, eta bizitza osoan zaindu zuen; modu autodidaktan ikasteaz gain, gai horri buruzko liburutegi izugarria osatu zuen, eta diseinatzaile amateur gisa jardun zuen bere bizilekuetan eta adiskiderik minenen egoitzetan. 1962an, ordea, jarduera horrek aitorten publikoa izan zuen, J.F. Kennedyk Etxe Zuriko bulego obala eta Ekialdea inguratzen duen Arrosen Lorategi enblematikoa diseinatzeko agindu zionean. Eta lan hura osatzeko, handik urte batzuetara, Jacqueline Kennedy lorategia berdiseinatu zuen, Lady Bird Johnsonen aginduz. Lan horregatik jaso zuen *Conservation Service Award* saria, 1966an. Aurrerago, garrantzizko lankidetzat izan zuen Versaillesko *Potager du Roi* zaharberritzeko lanetan. Mellon andreak hain miretsia zuen Jean de la Quintiniek diseinatu zuen hura XVII. mendean, eta bere adiskide Hubert de Givenchyk eskatuta egin zuen Bunnyk lan hura. *La Croix D' Officier des Arts et des Lettres* saria eman zioten lan harengatik.



Mrs. Mellon, bere topiariekin lanean, Oak Springeko (Virginia) finkako berotegietan, 1982 urtean. © Fred. R. Conrad. The New York Times.

Erakusketak ezin hobeto azaltzen du Mellon andrearen testuinguru biografiko hori, jantzi-hautaketa zaindu baten bitartez; bertan ikusten diren lorategian jarduteko jantzien, eguneko jantzien, koktelarako soinekoen eta gauerako jantzien bildumaz gain, prentsan argitaratu izan diren edo hainbat erakundetako artxiboetan dauden argazkiak eta jatorrizko objektuak ikusteko aukera dago, eta horrek giroak birsortzen laguntzen du; era horretara, zubi bat egiten da historian, eta Mellon andreak irudikatzen duen une eta mundu zehatz horretara hurbiltzeko aukera ematen digu.

**Artilezko oihal urdin
iluneko berokia, lau toles
txikiz osatutako toles
handiarekin bizkarrean.
BALENCIAGA. PARIS. 1957ko
abuztua. CBM 2004.37**

Mellon andreak harreman estua izan zuen Jackie Kennedyrekin, eta haren aholkulari, lagun min eta adiskidea izan zen. Jackierekin batera parte hartu zuen ekitaldi ofizialetan, eta aisialdian, festetan eta oporraldietan ere egon ziren elkarrekin. Kennedy presidentea hil zutenean, Bunny Antiguako bere etxean zegoen, eta Elizako, Kapitolioko eta Arlingtongo hilerriko lore apainketaz arduratu zedin deitu zioten. Eguneko beroki honekin lagundu zion Jackieri, Martin Luther King hil ondoren haren alargunarengana joateko, hari doluminak ematera (1968).



**Gaueko konjuntua,
doitutako gorputzez
osatua, mahatsondo-hostoz
apaindua, zeta beltzeko
organtzaz egina eta faila
beltzeko gonarekin.**

BALENCIAGA. PARIS.

1968ko otsaila.

CBM 2014. 245ac.

Cristóbal Balenciagaren azken bildumari dagokion jantzia da. Mellon andreak 1968ko otsailean eskatu zion, Washigtoneko National Gallery of Arts-eko udaberriko erakusketaren inauguraziora joateko, Mellon senar-emazteak ongile handiak baitziren. Urte horretako martxoan agertu zen jantzia Harper's Bazaar aldizkarian.



Lorategiko tunika zabala, erronbo formako plastroi-poltsikoekin, eta pistatxo koloreko kotoizko tafetanarekin. BALENCIAGA. PARIS. CBM 2014.96.

Cristóbal Balenciagak oso kontuan hartzen zituen Mellon andrearen eskakizunak; era horretara, hark hautatzen zituen modeloak egokitzen zituen batzuetan, edo haren eguneroko premien arabera diseinatzen zituen beste batzuetan. Jostunak Mellon andrearen lorategirako jantziak diseinatu zituen: tunikak, blusak eta gonak. Salbuespen bat zen, zalantzarik gabe, etxearen barruan. Bunny Mellonek zioen moduan, “eguneko diseinuak ezin hobeto egokitzen ziren beren bezeroen bizitzara. Hala, lorezaintza lanetarako lihozko edota kotoizko blusa zabalak nituen, eta gona lisoak...».



Bezera eta adiskidea

Haren gau-soinekoak eta berokiak zinez liluragarriak ziren. Eguneko diseinuak ezin hobeto egokitzen ziren bere bezeroen bizimodura. Horri esker, lorezaintzan lan egiten nuenean, nik liho-kotoizko blusa zabalak eta goma leunak nituen...

Rachel L. Mellon

Mellon andreak lagun baten bitartez ezagutu zuen Cristóbal Balenciaga; hain zuzen ere, Tiffany&Co etxerako bitxiak diseinatzen zituen Jean Schlumberg diseinatzaile ospetsuaren bitartez.

Honela kontatzen du berak nola izan zen bezero-harremanaren hasiera, eta nola egin zituen lehenengo erosketak: «Johnny Schlumberger adiskide mina nuen. Ez zuen zalantzarik egiten amerikar diseinuak kritikatu behar zituenean. Behin, ni Londresen nintzela, Balenciagaren probatzailea bidali zidan, neurriak hartzeko eta nire neurriko maniki bat egiteko. Udazken hartan bi soineko eta oihal beltz itzel batez egindako hiru laurdeneko beroki bat bidali zizkidan. Onartu behar dut izugarri gustatu zitzaidala. Orduan hasi nintzen Balenciagarengana jotzen».

Harreman hori berehala hasi zen adiskidetasunean oinarritzen, eta hamar urtez baino gehiagoz luzatu zen, leialtasun osoz. Balenciagaren adiskidetasunak eta bezero gisa zuen garrantziak markatu zuten Mellon andreak erosteko moduaren hainbat berezitasun, eta, hedaduraz, orain museoaren babespean dagoen eta erakusketa honen bitartez nabarmendu nahi den funtsarena.

Erosketa-prozesua

Pilaketa edo bildumazaletasuna dira Mellon andreak Balenciaga etxearekin trukatu zituen gutunen azterketa zehatzetik atera litezkeen bi hitz. Horren erakusgarri dira urteen joanean gorde zituen 128 fakturak: 1956. urtekoa lehena, eta Crstóbal Balenciagaren 1968. urteko azken bildumari dagokiona azkena.

Mellon andrea bezero berezia zen, bai bere leialtasunagatik bai bere ahalmen ekonomikogatik. Bien arteko adiskidetasun-harremanari esker, lehentasunezko tratua zuen *Maisonean*, baina ezin dugu ahaztu iparramerikarrak hamarkada batez 614.510 dolar gastatu zituela Balenciaga etxean.

Mellon andrea bezero gisa gehien nabarmentzen duten faktoretako batek zerikusia du zenbait modelo haren gustu eta premietara egokitzearekin. Azpimarratu beharra



Mlle. Renée Tamisierrek 1958ko irailaren 16an bidalitako zirriborroa. CBM 2014.527. © Cristóbal Balenciaga Museoa.

dago erosteko modu hori nahiko berezia dela Goi Mailako Jostintzaren testuinguruan, eta are bereziagoa zela Balenciaga Etxean; izan ere, ospetsua zen, eta ohikoa, ez zelako inolaz ere malgua, aldaketak egiteari edo modelook hutsaldu edo nabarmen aldaraziko zituzten eskakizunei erantzuteari dagokionez.

Tratamendu berezi haren ebidentziak aurki ditzakegu «I Feel Pretty» albumean. Mellon andreak berak osatu zuen, eta bertan bildu zituen Balenciaga Etxetik 1959tik 1962ra bitartean aukeraketa egiteko modu sistematikoan bidali zizkioten zirriborro guztiak. Bertan agertzen diren modelo ugariak primeran lotzen dira fakturekin, eta azpimarratzen du hautaketaren bitartez ehunak ere aldatzen zirela.

Zirriborro horietan, halaber, modeloa janzteko azalpen zehatzak ikusten dira. Dokumentu horiek guztiak erakusten dute Parisko tailerreko zuzendari zen René Tamisierrek modu ezohikoan jarduten zuela Mellon andrearekin, pertsonalki jarduten baitzuen harekin. Jantziak probatzeko prozesu zorrotza ere hausten zuen iparramerikarrak; izan ere, tailerrean bere neurri zehatzera egindako maniki bat zuten, eta bezero esklusiboenei baino ez zitzaien ematen horrelako tratua.



I Feel Pretty albuma. CBM 2014.526ab. © Cristóbal Balenciaga Museoa. Argazkia: Ibañez.



1962ko otsaileko 149.modeloaren zirriborroa eta pike estanpatuan egindako eguneko soinekoa CBM 2014.526.87 / CBM 2014.89. © Cristóbal Balenciaga Museoa. Argazkia: Paredes.



Lesageko chenille morean karduz brodatua dagoen faila horiz egindako déshabilléa. 210.modelo. 1960ko abuztua. CBM 2014.526.98. © Cristóbal Balenciaga Museoa.

Modeloak egokitzea eta errepikatzea

Deigarria da nola errepikatzen ziren zenbait modelo ehun batean baino gehiagotan, edo ehun berean; zenbaitetan, aurreko bildumetako modeloak erosten zituen berriro, edo zenbait pieza modu eksklusiboan sortzen ziren Mellon andrearentzat; osagarriak eta kamisoiak, besteak beste.

Erosteke modu berezi horren adibide argia da 1957ko abenduaren 19ko faktura, zeinetan agertzen den 4 beroki erosi zituela, 75. modeloari zegozkionak denak, baina gorabehera handiekin prezioari zegozkionez, erabilitako ehunaren edo forruaren arabera; izan ere, 440,47 dolar eta 9.523,89 dolar bitarteko prezioa baitzuten.

Mellon andrea Parisko Goi Mailako Jostintza inportatzen zuen nazioarteko bezero handienetako bat zen, eta bultzada handia eman zien europar luxuzko markei amerikar merkatuan sartzeko orduan. Faktura askotan ikusten da salgaiaren balioaren zenbateko osoa %25 garestitzen zela, aduanen, bilgarrien eta American Airlines enpresari ordaindu beharrekoaren ondorioz.

Balenciaga etxea itxi zenean, Mellon andreak hauxe esan zuen: «Nire bizitzako pozetako bat izan zen Cristóbal Balenciaga ezagutzea. Adiskide ona eta maitatua zen. 10 urtez baino gehiagoz diseinatu zituen nire jantziak. Sentiberatasun sakonaz ulertzen zituen luxua eta soiltasuna. Haren xarma, irribarrea eta diseinuaren ardura presente zeuden beti, haren presentzia lasaian».



Satin estanpatuz egindako bizkarrean Mrs. Mellonentzat aldatutako koktel-soineko harroa. BALENCIAGA. PARIS. CBM 2000.05ab. © Cristóbal Balenciaga Museoa. Argazkia: Outumuro.



1957ko abuztuko 126. modeloaren argazkia © Archives Balenciaga, Paris.

Bildumagilea

2014an hil ondoren,
Mellon andrearen
ondareak eta
jabetzen ongintza-
salmentak hari
buruzko informazio
pertsonal handia
eman du.



Horien bitartez ikusi ahal izan da gustu landu eta propioa zuela, eta irizpide estetiko sendoko emakumea zela, bai eta adiskide leiala zela ere, eta bere eragin zolia eremu pribatua baino askoz ere urrunago iristen zela.

Mellondarrei izugarri gustatzen zitzairen maite zituzten gauzak erostea eta gauza horiez inguratzea. Elkarrekin, munduko arte-bilduma pribaturik onenetakoa osatu zuten. Paulek inpresionisten eta antzinako Maisuen arterako joera zuten, eta Bunnyk gustu eklektikoa zeukan; beraz, berdin goza zezakeen XIX. mendeko paisaia kostunbrista batekin, zein maisulan garaikide batekin. Bere bilduma pertsonalean zituen, besteak beste, Giacometti, Rothkos, Diebenkorn, Braque eta abarren lanak, eta era guztietako altxorrez inguratu zen: altzariak, portzelana, saskigintza, bitxiak edo jantziak, horiek guztiak bere etxeetan eta bazterretan oso modu nabarmenean kokatuak, proportzioaren eta edertasunaren sen zorrotz eta bereziari jarraituz eta «garrantzizko» lanei goi mailako estatus dekoratiboa ukatuz. Bere baliabideek aukera ematen zioten, prezioa neurtu aurretik, gauzak irizpide pertsonalen arabera baloratzeko. Haren adiskide eta galerista zen Giraudek 2014an Financial Times aldizkariarentzat egindako elkarrizketa batean

Mrs. Mellon botanikari buruzko bere liburuetakoa batekin, 1982 urtean. © Fred. R. Conrad. *The New York Times*/Contacto.



Mark Rothko-ren koadroa. Mellon andreaken bilduman izandakoa. © Sotheby's

adierazi zuenez: «beti epaitu dezakezu bildumagile bat bere hormetan dagoenari erreparatuta. Berak Van Gogh bat zuen bainugelan, eta, Antiguako bere egongelan, Rothkoren erakusketa baten poster bat».

Bilduma guztien artetik, Mellon andreakentzat *Oak Spring Garden Library*-n dagoena da garrantzizkoena: jasangarritasunaren ikerketaren eta espezie botanikoen zainketaren zerbitzura dagoen funts handi bat. Arte bilduma erradikalean egiten zuen bezala, horretan ere Mellon andreak aurrea hartu zion bere garaiari, naturarekiko eta ingurumenarekiko kezka agertu zuenean.

Emakume hura *tastemakertzat* hartzea gehiegizkoa izan badaiteke ere, gutxi agertzen baitzen jendaurrean, begi adituaz eta sen bikainaz gidatuta osatzen zituen bere bildumak Mellon andreak. Oso miretsia eta imitatua izan zen bere inguruan; zalantzarik egin gabe erabiltzen zuen bere eragina artistak eta pertsonak sustatzeko, baldin eta haiengan sinesten bazuen, esate baterako, Schlumberger, Rothko edo Jackie Kennedyrekin, besteak beste.

Mellon andreak Balenciagaren arrokekin osatutako bilduma ez da salbuespena bildumagilearen begi trebatuari dagokionez; izan ere, bere irizpide eta lehentasun estetikoaren barruan, Cristóbal Balenciagak sortzaile gisa egindako ibilbide osoan aipagarrienetakotzat har litezkeen hainbat pieza hautatu baitzituen hari leiala izandako 12 urteetan, eta, hori dela eta, bildumako pieza enblematikoenak direnez, nabarmendu egin dira erakusketa honetan.



Paintings from the Albright-Knox Art Gallery, Buffalo, New York erakusketaren inaugurazioan, Washingtongo National Gallery of Art museoan, 1968ko maiatzaren 17an. © National Gallery of Art, Washington, D.C., Gallery Archives.

Milimetroz milimetro aztertutako eraikuntzak, gorputza estutu gabe bolumen zainduak lortzen dituztenak, funtsezkoenari erreparatuz: edertasuna eta proportzioak. Hala ikusten da erosotasunaren adibide honetan, ez baitio handitasunari uko egiten gaueko soineko hanpatu honetan, zeta arrosako ikatean egina, bioleta koloreko estanpatuarekin. 10. modelo. 1961eko otsaila. CBM 2000.33. © Cristóbal Balenciaga Museoa. Argazkia: Outumuro.



Babydoll koktelerako
soinekoarentzako parpaila
tolestu urdin argiaren
hautaketa berrikuntza
garrantzitsua da xx.
mendeko modaren historian.
BALENCIAGA, PARIS.
49. modeloa. 1957ko abuztua.
CBM 2000.51. © Cristóbal
Balenciaga Museoa.
Argazkia: Outumuro.



Gazar beltzeko soinekoaren dotoretasun biluziak azpimarratu egiten du getariarraren sorkuntzalan askoren ezaugarri zen soiltasun garratza, eta bizkarraren garrantzia dogmatizatzen du.

BALENCIAGA. PARIS. 148. modelo. 1964ko abuztua. CBM 2000.17. © Cristóbal Balenciaga Museoa. Argazkia: Outumuro.



Gabardina-berokiak sortzen duen silueta soilak, «cocoon»-aren kurbak nabarmentzen ditu, eta Balenciagaren ikuspegi modernoa agertzen du, jantzia itzulgarria delako. Rachel Mellon andreak oso aintzat hartu zuen, horrenbeste ezen hiru alditan erosi zuen. Bertan, ondo landutako tolesak, bizkarreko hainbat puntutan kokatuek, nabarmen uzten dute barrualdean dabilen airearen garrantzia eta azpimarratu egiten dute ehunen aprestu naturala. **BALENCIAGA.** PARIS. 108. modelo. 1957ko abuztua. CBM 2000.24. © Cristóbal Balenciaga Museoa. Argazkia: Outumuro.



Perfekzioa eta aisiaren ezagutza ezin hobeto azaltzen dira quadrillé jantzi urdin ilunean; hura zen Mellon andrearen kolore kutunetako bat. Oinarrizko jantzia zen haren armairuan, zeinetan aplomuak, kanezu inguratzailea edo ezin hobeto lotutako quadrilléa diren jostunak erabiltzen dituen baliabideetako batzuk, traje jakadun soil bat maisulan bihurtzeko. BALENCIAGA. PARIS. 4. modeloa. 1966ko otsaileko. CBM 2000.41ab. © Cristóbal Balenciaga Museoa. Argazkia: Outumuro.



Artile laranjako krepe
soinekoaren soiltasun
konplexuan azpimarratutako
materialen maisutasunak eta
nagusitasunak Balenciagaren
kutsua nabarmentzen
du, eta, zalantzarik gabe,
bilduma honetako pieza
enblematikoenetako bat
da.. BALENCIAGA. PARIS. 80.
modelo. 1967ko otsaileko.
CBM 2000.38. © Cristóbal
Balenciaga Museoa.
Argazkia: Outumuro.



Mendeurrenaren harira.

Lehenengo urteak

Balenciaga 1895ean jaio zen, Getarian. Gipuzkoako (Euskal Herria) arrantzale-herri txiki bat da Getaria, eta Balenciagak betidanik sentitu zuen bere burua hari lotua; hala, behin baino gehiagotan itzuli zen bertara bere bizitzan zehar.



Amak, Martina Eizaguirrek, erakutsi zion josten. Casa Torreseko markesen jostuna zen ama, eta haiek Getariara joaten zirenean (atseden hartzera joaten baitziren bertara, Espainiako Gorteari jarraituz) jarduten zuen haientzat lanean. Markesa oso dotorea zen eta garrantzi sozial handikoa, eta hura izan zen Balenciagari bere karreran lagundu zion lehenengoetako bat. Ama izan zen, edonola ere, erreferentzia nagusia Balenciagarentzat bizitza osoan zehar.

Abentura horren hasiera mendearen hasierako testuinguru loretsuan kokatzen da, Donostian, jaioterritik 30 km-ra besterik ez. Oso une berezia izan zen hiriaren hirugarren sektoreko jarduera ekonomikoari dagokionez; izan ere, gorteak han igarotzen zuen uda, eta turismoak nabarmen egin zuen gora Euskal Kostaldean, mugaren bi aldeetan: Donostia eta Biarritz izan ziren turismoaren arretagune nagusiak.

22 urte zituela jarri zuen abian Cristóbal Balenciagak lehenengo negozioa. Gauza gutxi ezagutzen da jostunaren esperientziari eta prestakuntzari buruz, baina jakinik hirian bizi izan zela 1907. urteaz geroztik –udal erroldaren erregistroaren arabera–, logikoa litzateke pentsatzea Donostian Parisko modarekin lotura zuten etxe garrantzitsuenetakoren batean ikasiko zuela. Urte horretan langileak lortzeko hainbat iragarki argitaratu izanaren lekukotasun dokumentalak daude, eta matrikula



Donostiako tailerrak 50. hamarkadan.
© Cristóbal Balenciaga Museoa.

industrialaren liburuan eman zuen izena, Jostuna epigrafearen barruan, kategoriarik altuenari dagokion zerga-kuotarekin eta «Cristóbal Balenciaga» izenarekin, Bergara kalean, 2. zenbakian.

Urtebetean aldatu egin zuen sozietatearen izendapen hori, eta, hainbat bazkiderekin batera, Lizaso ahizpekin hain zuzen ere, sozietate mugatu bati ekin zion, sei urteko indarraldiarekin; horrela sortu zen «C. Balenciaga y Cía», helbide berean.

Epe hori igaro ondoren, 1924an, desegin egin zen elkarte, eta, haren ordean, «Cristóbal Balenciaga» enpresari eman zion alta eta Askatasunaren Hiribideko 2. zenbakira eraman zuen. 1927ko martxoan «Martina Robes et manteaux» sortu zuen (Martina zuen izena bere amak), bigarren marka gisa, Okendo kaleko 10. zenbakian, 1. solairuan, dibertsifikatzeko helburuari jarraituz; urrian, izen berri bat hartu zuen, «EISA Costura» (Amaren abizenarekin -Eizaguirre- lotutako izen bat berriro ere).

Bigarren etxe eta marka hori, lehenarekin batera ziharduena, baliabideak optimizatzeko eta bertako burgesiako bezeroen oinarria zabaltzeko helburuarekin osatu zen. Lehenengo enpresa 1937. urtera arte egon zen zabalik, etenik gabe; urte hartan, Cristóbal Parisera joan zen, eta «Balenciaga» zabaldu zuen. Bigarren marka Madrilera (1935) etaartzelonara (1935) zabaldu zuen, EISA BE izenarekin, baina Donostian gelditu zen etxe nagusia, Askatasunaren Hiribideko 2. zenbakian zuelarik egoitza.

Espanian egin zituen lehenengo urte haiek funtsezkoak izan ziren, inondik ere, bere teknika hobetzeko, bere eragin artistikoak eta estetikoak zehazteko eta enpresari gisa sendotzeko. Alderdi horiek guztiak garrantzizkoak dira ulertzeko etorkizunean izan zuen ibilbidea, garapena eta eklosioa, zeina Parisek eskaintzen zuen testuinguruan baino ezin zitekeen gertatu, hura baitzen Modaren Munduko Hiriburua. Eta nazioarteko lehen mailako bezero garrantzitsuak lortzera iritsi zen, besteak beste, Mellon andrea, bezero eta adiskide izan zuena.



George V.a Boulevardeko 10. zenbakian Parisko etxe ospetsua zabaldu zuen Cristóbal Balenciagak. © Juan Gyenes. Biblioteca Nacional de España / Cristóbal Balenciaga Museoa.

El Museo Cristóbal Balenciaga



Cristóbal Balenciaga Museoa eta Aldamar jauregia. © Cristóbal Balenciaga Museoa.

Cristóbal Balenciaga museoak 2011. urteko ekainaren 7an zabaldu zituen ateak. Jostunaren jaioterrian dago kokatua, Cristóbal Balenciagaren lehenengo prestakuntza-urteen eta heldutasun profesionalaren oroimenez eta modaren munduari egindako ekarpenak ulertzeko helburuarekin.

Balenciagaren bizitza eta lana, modaren eta diseinuaren historian izan zuen garrantzia eta bere ondarearen garaikidetasuna ezagutzera emateko helburuarekin, bilduma aparta du museoak. Oso bilduma zabala da –3.000 pieza inguru ditu, baina etengabe ari da handitzen, gordailuei eta dohaintzei esker–, eta hedadura formal eta kronologiko handia du –jostunaren modelo zaharrenak daude, esaterako–; bi ezaugarri horiei esker, gaur egun dagoen bildumarik osatu, koherente eta interesgarriena da.

Bildumaren beste balio ezohiko bat piezen jatorria da; izan ere, Balenciagaren nazioarteko bezero handiak xx. mendeko gizarteko pertsonaia aipagarriak izan ziren: Mona Von Bismarck, Bunny Mellon, Patricia López Wilshaw, Barbara Hutton, Rethy printzesa, Grace Kelly edota Madame Bricardek, besteak beste, Artxiboetan dauden modeloak jantzi zituzten.

INFORMAZIO PRAKTIKOA

Informazio gehiagorako:

Zuriñe Abasolo Izarra

zurine.abasolo@fbalenciaga.com

T 943 004 777

M 647 410 775

MUSEOAREN ORDUTEGIA

EKAINA, IRAILA, URRIA

Asteartetik igandera 10:00-19:00

UZTAILA, ABUZTUA

Astelehenetik igandera 10:00-19:00

AZAROA-URTARRILA

Asteartetik igandera 10:00-15:00

BISITA GIDATUAK

Museoak bisita gidatuak doan egiteko aukera eskaintzen du, asteburuetan eta jaiegunetan. Ordubete irauten dute. Uztailean eta abuztuan, egunero izaten dira bisita gidatuak.

Ordutegiak: Goizetan, 11:00etan eta 12:30ean.

Arratsaldeetan, 17:00etan (martxoa-urria)

Bisita pribatuak egiteko aukera, urte osoan .

ERAKUSKETAREN GIDA

56 orrialde

Gaztelania/euskara/frantsesa/ingeleza

Museoko dendan eros daiteke. Prezioa 5€

B

CRISTÓBAL **BALENCIAGA** MUSEOA

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria - Gipuzkoa - España
T 943 008 840
info@crislobalbalenciagamuseoa.com
www.crislobalbalenciagamuseoa.com



EL DIARIO VASCO

BONAVERI

Bonaveri 1950ean sortu zen, Centon, eta kalitaterik handieneko manikiak eta bustoak fabrikatzen ditu. Urteen joan-etorrian, Bonaverik kalitate-maila berria ezarri du manikien sektorean eta modako marken identitatearen adierazle gisa manikiek betetzen duten rolean. Konpainiaren egoitza nagusia Renazzo di Centon dago (Ferrara, Italia), eta, han, 20.000 maniki inguru fabrikatzen dituzte urtero. Bonaverik bi produktu-ildo eskaintzen ditu: Bonaveri eta Schlappi Maniki Artistikoak. 2017tik, Bonaverik marka berria dauka, “B by Bonaveri”, premium merkatu handira zuzendutakoa eta modaren munduan gazte-kultura aztertzen duten bildumak jasotzen dituena. [www.bonaveri.com]

Diebenkorn Foundation / National Gallery of Arts Wahington D.C. / Kenneth Lane /
Privilege Orfevrerie / Sotheby's / Swarosky / VEGAP